

86. zk.
2000ko otsaila



Frankeo itundua 48/27

Bertso Saioa
otsailak 26
(2 sarrera: 700 pezeta bakoitza)

OGUETA



Paquita la del barrio

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA... ADI 23. ORRIALDEARI

Liburudenda

Benito Ginea kalea, 2 • GASTEIZ

Tel/Faxa: 945 25 75 14

silueq|o



2000. URTEA=ALDIZKARI BERRIA=IZEN BERRIA=GEU ALDIZKARIA=EGITURA eta ATAL BERRIAK, KOLABORAZIO BERRIAK...Zizka-mizkak, Zukua, Soinuen dantza, Sasoian, Kozkortuz, Erakustokia...PLISTI-PLASTA taldea, BEGIRA ELKARTEA, ELHUYAR Kultur Elkartea, MIKEL VALVERDE irudigilea (TMEO, Bambulo, Zazpika, Ipurbeltz...), Maite Nuñez-Betelu EE.BBetatik, Bahia Mahamud Saharatik...Lehiaketak, zinema...

ZEUK AUKERATU! ETA GOZATU aukera berrieekin!

hilabete honetan



12... 15. orr.
Zukua
Oguetarekin hizketan

21... 23. orr.
Ipurbeltz
aldizkaria
Atzo, gaur,
gero



18... 19. orr.
Matrikulazio
Kanpaina
Euskarazko
Hezkuntza



• **atalak** •

4. orr. zizka-mizkak - 7. orr.
laburretan - 10 orr. nik uste!
17. orr. Kozkortuz - 32. orr. Zeuk
aukeratu! - 34. orr. Komikia

16. orr. Elhuyar.
Tea gaixotasun koronarioen
prebentziorako.

24. orr. Euskara harat honat
“Neguko nortasun krisiak”

25. orr. Euskaltasunean
lagun. Unai Gartzia.

26. orr. Eremu Urriko
Hizkuntzen Biltzarra.
Hizkuntzak biziberrituz.

29. orr. Erakustokia.
Mauro Entrialgo.

30. orr. Paquita la del
barrio.

AZKEN ORDUA: • GEU ALDIZKARIA LAGUNTZA ESKE! S.O.S •

ARABAKO FORU ALDUNDIAK URTEROKO KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK ETEN DITU, momentuz (????...!!!!) -emandako arrazoia: 2000. urterako aurkeztu aurrekontua onartu ez izana-; HORTAZ, AURTEN, MOMENTUZ BEHINTZAT (????...!!!!), EZ DAGO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIRIK... KULTURA ARLOAN -beste batzuen artean- euskara eta euskal kultura bultzatzea eta euskararen normalkuntza helburu duten-dugun Araba eta Gasteizko elkarte, talde eta egitasmoak sartzen dira; atera, beraz, kontuak!!!

HONEK ZERA DAKAR: GEU ALDIZKARIAREN EGITASMOA ARRISKUAN JARTZEA, eta etorkizuna... Guk ez dugu aldizkariaren sustengu ekonomikoa subentzioetan soilik oinarritzen, gure bide propioak dauzkagu, baina dirulaguntzak badira atal garrantzitsu bat...

1999. urtean Foru Aldundiaren eskutik milioi bat erdietsi ahal izan genuen aldizkarirako, subentzioen deialdian proiektua aurkeztu ondoren, eta aurtan momentuz (????...!!!!) ez dago inongo aukerarik ezertarako!

Batetik, aldizkari bat ekoiztea garestia da. Bestetik, esfortzu izugarria egiten ari gara egun dena hobetzeko eta normalizatzeko (ekonomikoki aspaldiko inprenta-zorra kasik osorik kitatzear genuen, kalitatea aldizkarian, lan egoeraren normalkuntza...).

Batzuek uste izango duzue Geu-n dirua soberan dagoela, batez ere aldizkarian agertzen diren erakundeek ikurak ikustean... Erakundeek dirua ematen dutenean, kopurua txikia bada ere, ikurak derrigorrez jarri behar dira, eta hau da Geu-ren errealitatea: Elkartean diru juxtua, euskararen normalkuntzaren aldeko urtean zenbait ekimen (ahal dena eta merke), gero justifikatu beharrekoak, aurrera atera, aldizkariari lagundu eta zuzpertzailari ordaintzeko beste; eta aldizkarian...

Hauxe da benetako egoera: aldizkariaren egoera ekonomikoa ez da inoiz ona izan. Duela 2 urte inprentarekin 2.500.000ko zorra izatetik, sekulako esfortzuaren ostean, gaurko 800.000

pezetako zorrera pasa gara; hortaz, egoera izugarri hobetu dugu, baina hemendik aurrera berriz ere zuloan erortzeko arriskuan gaude...

Oso espektatiba onak geneuzkan 2000. urterako egindako aurreikuspenaren arabera (eta helmuga berriak, berrikuntzak, hobekuntzak...), baina Foru Aldundiaren jokaerak jokoz kanpo utzi gaitu... Eta gure ametsak momentuz aparkatu, atzeratu beharko ditugu...

Halako kolpeekin arriskuan jartzen da 7 urtez gure artean egon den euskarazko aldizkari bakarraren geroa, askoren ametsa...

Arabak, Gasteizek, Euskarak... askoz gehiago merezi dutelako ezin gera gaitezke geldirik eta jada lanean jarri gara gertatutakoa gainditzeko...

Baina une zail honetan, zuloan eror ez gaitezen, zuengana jotzen dugu, ahal duzuen neurrian, gurekin diruz kolabora dezazuen:

Geu aldizkaria. 2097 0167 83 0008061533 • Mila esker denoi!!!

zenbakia

5.000

**la 5000 ikasle daude
matrikulatuta egun
Gasteizko euskaltegietan**

GEU Elkarteen ekimenez egina



Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate.

Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.

Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.

Argazkiak: Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Irudigilea:** Mikel Valverde. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldua, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea:** Edurne Begiristain.

Banaketa arduraduna: Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik.



ikusi-makusi



Argazkia: Estixu Breñas

**ZORIONAK ETA
URTEBERRI ON,
EUSKALDUN DENORI**

“Cisneros Kardinala; Alba Dukea;
Inkiszioa; Espartero; Condor
Legioa; Faxismoa, argazkikoa...
Halarik ere, Euskal Herria 2000.
urtera iritsi da”

Hauxe zioen Gabonetan Gasteizko
zenbait kaletako paretetan –gutxitan,
egia esan- ikusi ahal izan zen “Gazte
Abertzaleak”ek jarritako kartelak

araba bixotzian



- Ordoñana inguruak -

Mikel Vahende 2000

zizka - mizkak

eleka

"1980. urtean Araba Euskaraz ikastolen jaialdia antolatu zen estreinakoz"

GURE MENDEA. Euskal kulturaren ehun urteko kronika. ARGIA. 1999ko abenduan

"Munduaren erdi bat 10 hizkuntzatan mintzatzen da; bestea 5000tan"

Zabalik. 1999ko azaroan

"Ez baita Euskal Herria euskalduntzeko gai izango, aurrez bere burua euskalduntzeko gai ez den indar politikoa"

Herria eginez. 1999ko negua

"Ikastaroetara mutil-lagun bila nindoan galdetzen zidaten"

Natalia Astrai, Estatu osoko 1. mailako Futboleko lehen entrenatzaile emakumezkoa. Gara. 2000ko urtarrilean

"Tubacex-ek emakumezkoa diskriminatzen du sarbide-probetan"

IU-EBko Emakume saila. Arabako Egunkaria. 2000ko urtarrilean

"Gauza berriak interesatzen zaizkit, normalean korrante ideologiko batekin lotura daukatenak, dena fribolizatzen duten modak ailegatu baino lehen"

Fermin Muguruza. Ostiela, 16. zenbakia

izenak



AMILAMIA

- Literatura aldizkaria
- Adina: 14 urte
- 1. alea: 1986ko ekainean
- Non sortua: Frantzia kaleko Tolosa tabernan -gaur "Frontón taberna"-.
- Zuzendaria: Jose Luis Pasarin Aristi
- Izenaren etorria: Amilamia Arabako La Lezeko jeinu positiboa da; ilea urrezko orraziaz orrazten zuena, eta erreka harriak behatu eta urre bihurtzen zituen, gero herritar xumeen artean banatzeko.
- Hizkuntza: gaztelera eta euskara (halere, beste zenbait hizkuntzatan -errusiera, portugesa, adibidez- idatzi poesiak ere aurki daitezke).
- Maiztasuna: duten diruaren arabera, lorturiko dirulaguntzen arabera... Dagoeneko 20 ale kaleratu dituzte eta ospatzeko ALE BEREZIA argitaratu dute -bertan orain arteko azal, olerki eta izen ugari, ez guztiak, aurki daitezke-.

Zorionak!!!

naturaren isladak

Arabako Natur Institutua Araba eta bere inguruko Ondare Naturala aztertzea, dibulгатzea eta konserbatzea helburu nagusitatzat dituen elkarte zientifiko eta kulturala da. (tfnoa: 945 24 66 06)



Urtarrila. Negu gorria. Hotz garaia. Agian horrexegatik azeriak (Vulpes vulpes) bikotea aurkitzeaz arduratzen dira.

Txosnei buruzko eztabaida hasi da

Kultura zinegotzi izendatu bezain laster iragarri zuen Encina Serranok txosnen gaiari heltzeko gogoia zuela, eta Gasteizko jaietarako zortzi hilabete falta direnean berrartu du gaia. Katedralaren ondoko kokagunea ez zaio gustatzen Serrano PPko orde-

kariari eta Zezen plazako aparkalekua eskaini dio Txosnen Komisioari.

Kokagunea ez da PPK aldatu nahi duen gai bakarra. Izan ere, "jokaera eta estetika" aldaketa ere eskatu dio Serranok Txosnen Komisioari, "inork jai esparru horretara joateko beldurrik izan ez dezan".

Kokagune, jokaera eta estetika aldaketa horren truke Udalak Komisioaren programa diruz laguntzea eskaini du.



Zelatatzeko langileak

Gasteizko Eroskiko langileek salaketa jarri diote enpresaren zuzendaritzari beraien atsedean gunean bideo-kamara bat jarrita zegoela ohartzean.

Gasteizko Eroskiko kudeatzaileek langileen gelan lapurretak izan direla gogoratu zuten, eta kamara gertaera horiek argitzeko jarri zutela adierazi. Azalpenak ez ditu langileak konbentzitu eta salaketa jartzea erabaki dute. Salaketa bi ikuspegitatik begiratu-ta gainera: batetik, enpresak gertatutakoa argitzea eta konpontzea eskatu dute, eta bestetik, epaitegietara jo dute baimenik gabeko zelatatzeatzat jotzen dutena azaltzeko.

Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multieskaintzak Orain familia osoarentzat.

**Multiofertas
MULTIOPTICAS**



Erref: B0003

Bonardi bilduma

Guztientzat

3.800 pta.n
22,84 €

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a



EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO

Lente Progresiboak

Gurasoentzat

19.500 pta.tik aurrera
117,20 €

**MENDIAOPTIKA
MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



www.multiopicas.com

Sidenorren, zer?

Sidenor eta Gasteizko Udalak iaz sinatutako akordioak agindu bezala, Zaramaga auzoko lur eta eraikinaren zati handi bat esku publikoetan geratu zen urtarilaren lehen egunetan. Orain 137.000 m² horietan gauzatutako den proiektua hautatu behar du Alfonso Alondoren taldeak eta 2000.eko lehen hilabeteetan erabakia hartuko dutela garri du alkateak. Udalak ia 2.700 milioi ordaindu zituen lur horien truke.

Hasiera batean non kokatu ez dakiten autobus eta tren geltoki bateratuarentzat leku egokia izan zitekeela zabaldu zuen Udalak, baina horretarako trenbidea lekuz aldatu behar da eta hori egitea merezi duen aztertzen ari dira.

Aparkalekuak Alde zaharrean

Alde zaharreko auzokoek azken hilabeteetako kaleen egokitze lanek eragin dizkieten arazo eta ezerosotasunei buruzko kexa ugari bota dituzte. Kexa horietako bat, Gasteizen nahikoa arrunta dena, aparkalekuen urritasunarena zen. Orain Udalak arazoari aurre egiteko behin-behineko aparkaleku bat zabalduko du Gasteizko punturik altuenean, Etxauriko Lorategian, alegia.

Doakoa izango da eta Udalak 2.400.000 pezeta inbertitu ditu Etxauriko lorategietako gunea aparkaleku bihurtzeko.



EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Xabier taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

EL

BAR
Kutxi

e
g
u
n
e
k
o

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

Mendizorrotz berrituko dute

Antonio Sanchez Kirol zinegotziak Komisiona aurkeztu ditu Udal Batzak Mendizorrotzen egin nahi dituen aldaketak, eta lanak aurtengo lehen hiruhilekoan hasi nahi dituela azaldu.

Udalak prestatutako proiektuaren arabera, 2001. urterako paddlean jolasteko lau pista, saskibaloirako bi, atletismo pista estalia eta jolasteko igeritoki berria izango du Mendizorrotzak. Horretaz gain, jolastokia eta lorategiak egokitu nahi ditu zinegotziak. Guztia egiteko 150 milioi pezeta beharko ditu Udalak.

2.500 milioi pezeta beharko dituen Gamarrako berrikuntza 2003. urtean hasteko asmoa duela ere iragarri du Sanchezek.

Zuloa liburudendak ateak itxiko ditu

Zuloa, Pintore kaleko liburudendak ateak itxiko ditu datozen hilabeteetan. Azken urteotan Gasteizen kultur produktuak saltzen zituzten zazpi denda itxi behar izan dira, superfizie handien lehia ezin gaindituz; Herrikoia, Alfaro eta Linacero, beste batzuen artean, eta orain Zuloa.

Zuloako arduradunek liburudendan dauden produktu guztiak saltzeko pare bat hilabete beharko dituztela uste dute, beraz, martxoa amaiera aldean ateak itxiko dira, dendako ekitaldi guztiak Zuloa Irudia-ra pasako dituztelarik, komikien salmenta eta gainontzeko jarduerekin jarraitzeko asmoz.

Duela 13 urte zabaldu zuten Zuloa eta urte horietan liburu eta diskoen salmenta gunea izateaz gain, hainbat kultur ekitaldiren eszenatoki eta topaleku kulturala ere izan da.

MOTZ-MOTZEAN

Herrialde pobreen kanpo zorra ezabatzearen alde lan egiten duen Gasteiz hiriko sarea deritzan taldeak martxoako hauteskunde nagusien egunean bertan kanpo zorra ezabatzeari buruzko erreferenduma ere egitea proposatu du.

Gasteiztarrek urteetan erabili dituzten bonobusak baliorik gabe gelditu ziren urtarrilaren 31an. Otsailetik aurrera diruz edo kreditu txartelez bakarrik ordain daiteke autobus bidaia.

Gasteizko erdiguneko kaleetan ibilgailuen kontrol automatikoa ezarri nahi du Udalak. Kontrolak goizean zamaian egitea baimenduko du, baina arratsaldetik aurrera auzokoan kotxeak, taxiak eta larrialdietako zerbitzuak baino ezingo dira pasatu.

TMEO komiki aldizkariak euskarazko lana kaleratu du lehenengo aldiz: Alvarez Rabo marrazkilariaren "Anal-fabetoak", homosexualitatearekin zerikusia duten zenbait gai biltzen duen komikia, salgai dago.



Adopzioari buruzko berriak modan daudela dirudien aron 1999. urtean Araban 39 haur adoptatu zirela esan behar da. 39 neska-mutil horietatik gehienak, 31 hain zuzen, Txina, Ekialdeko Europa eta Hegoamerikarrak dira.

Arabako Natur Zientzietako Museoko zientzilariek ezagutzen ez ziren hiru goroldio mota berri sailkatzea lortu dute. Bat Zuia eta Koartangon hazi egiten da, erreka inguruan, beste biak Gineako oihan tropikalean. Gineako lana Manuel Iradier elkartearekin batera burutu dute azterlariek.



GASTEIZKO BATZOKIAK
ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDAÑO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

GASTEIZ GARBI OTE DAGO?

Gasteiz izan da aurten ere, eta hiru urte hurrenez, "Kontsumitzaile Independienteen Elkarte" k urteko hiri garbienari ematen dion sariaren irabazle. Gasteiztarrei erabakiari buruz galdetu diegu beren iritzia zein den jakin nahian.

1.- Zer deritzozu Gasteizek irabazi duen sariari buruz?

2.- Gaur egun hobetu beharreko zerbait ikusten al duzu?



Maider. Zuzenbideko ikaslea

- 1.- Gasteizek sari hau merezi duela deritzot, inguruan dauden hiri garbientarikoak baita.
- 2.- Dagoen bezala oso ondo dagoela uste dut, batez ere Espainiako beste hiri batzuekin konparatuz.



Torivio Calvo. Langilea

- 1.- Ni ez nago hain ados sari horrekin, Gasteiz geroz eta zikinago baitago.
- 2.- Beti dago zerbait hobetzeko, eta nire ikuspuntutik gaur egun hobetu beharreko gauzak asko dira.



Thierry. Langilea

- 1.- Nik ezagutzen ditudan hirien artean Gasteiz da garbiena. Horrela ba, sari hori merezi duela uste dut.
- 2.- Kaleak garbi daude, baina garbiago ere egon litezkeela uste dut.



Jon. Ikaslea

- 1.- Ni oso gustura bizi naiz Gasteizen, oso hiri garbia delako. Sariak jasotzea merezi du.
- 2.- Nik ikusten dudana da hiritarrak ez direla behar bezala portatzen, zaborrak lurrera botatzen baitituzte.



Patrizia. Ikaslea

- 1.- Gasteizek halako sariak merezi dituela pentsatzen dut, oso hiri garbia delako.
- 2.- Nik hobetuko nukeena erdialdeko garbiketa izango litzateke.



Iñigo Velez. Ikaslea

- 1.- Harro senti gaitzke gasteiztarrok gure hiriak halako saria irabazteagatik. Pertsonalki, saria merezi duela uste dut.
- 2.- Gauzak hobetzea beti dago ondo.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

EUSKARA

ikasi

*HABEren dirulaguntzaz antolatua



Hamaika urte



, ZURE BETIKO EUSKALTEGIAK"

**2, 3 eta 5 orduko
ikastaroak**

**Maila guztiak
EGA, MINTZA eta
SAKONTZE**

**Matrikulazio epea:
Urtarrilak 24 - otsailak 11**

INFORMAZIOA

GASTEIZ Euskaltegia

Errege-Erregina Katolikoak 15 - C • 945 28 89 22

PINTO Euskaltegia

Pinto 74 • 945 28 97 80

ZALDIARAN Euskaltegia

Badaia 25 • 945 24 49 05



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Bizitza oso bat frontoian

Jolasteari aspaldi utzi bazion ere, zaila da pilotaren munduan egiten diren ekitaldi gehienetan Ogeta ez ikustea. Mila bederatziehun eta hogeita hamabostean jaio, eta hamazazpi urte bete berri zituela profesional moduan jolasten hasi zenetik ez du mundu honetatik aldentzerik izan.

Bernedoko frontoiak trebatu zituen beso eta hanka horiek lau eta erdiko txapelketa bat, banakako bi txapelketa eta

Espainiako beste txapelketa bat eskuratu zituzten. Gaur egun bere ilusioak enpresarloan jarrita dituen gasteiztar honek bere arbasoetatik jaso zuen Ogeta goitizena.

Jose Mari Palacios arabar pilotak eman duen jokalaririk esanguratsuena da.



Jose Mª Palacios "OGUETA"

Arabak bolada bat izan zuen, baina ohitura galduz doa

- Zertan desberdintzen dira zure garaiko pilota eta oraingoa?

- Jokoak, lehenengo, bere horretan jarraitzen du. Arautegia ez da ezertan aldatu. Frontoiak ere antzekoak dira. Hala ere, zerbaitetan aldatu dira, bai; orain ezaugarri beretsuetakoak dira gehienak. Oro har, jolasten nueneko frontoiak baino azkarragoak dira oraingoa. Beharbada, aldaketarik nabarmenena materialean izan da...

- Eta zertan gauzatu da materialaren aldaketa hori?

- Oraingo pilotek bote handiago izaten dute eta ezaugarri horrek zailago egiten du pilotaren kontrola. Baina pilotagileek diotenez, dagoeneko ahuntzen larrua eta artilea ez dira atzokoak; horren

errua elikadura motaren aldaketari leporatzen diote. Honen ondorioz, gaurko pilotak errazago irtezen dira.

- Zeintzuk nahiago dituzu orduan?

- Lehengoek askoz joko gehiago ematen zuten; horiek nahiago ditut, dudarik gabe. Oraingoa arinagoak izan arren, besteak errazago maneiatzen ziren. Pilota pilotariak kontrolatu behar du, eta ez alderantziz, bestela ezin da joko polita egin. Agian, eta lehen galdetzen zenidanez, nire garaiko pilotan, nolabait esateko, "okertuago" jokatzeko zen, frontoiaren angelu guztiak aprobetxatzen ziren; orain, aldiz, zuzenago jokatzen da, frontoiak duen zabalera osoan jolastu gabe. Horregatik, orain tanto asko frontoiaren atze-

- ✓ 1935an jaioa
Gasteizko Arana kalean.
- ✓ 1952ean hasi zen
profesionalen jolasten.
- ✓ Txapelak:
Espainiako txapelketa
bat, Banakako bi txapel-
keta eta 4 1/2ko bat.
- ✓ Gaur egun enpresaria da.



Jose Mari Palacios "Ogueta" bere aitarekin (Esteban Palacios, 30. hamarkadako pilotaria)

aldean egiten dira. Hori da jokatzeko eraren berrikuntzarik nabarmenena...

- Eta eskuei dagokienez, gero eta gehiago babesteko joera nabarmen ari da, ez al da hala?

- Beno, hori egia da. Jokatzeko duten erarengatik babesetatik abusatzen dute, azala ez zaie ia ikusten. Takoak esparatrapuarekin estaliz eskularru moduko bat jarri, eta eskua guztiz tapatua jokatzeko dute. Gure garaian babesteko zerbait jartzen genuen, baina ezer gutxi. Egia da pilota horiek hobeto maneiatzen zirela, eskuan hobeto egokitzen ziren eta, ondorioz, min gutxiago egiten zuten. Gaurko pilotek duten bote ikaragarriarekin pilotariak ondo zaindu beharra dute beren burua, bestela lesionatuta emango lukete denboraldi gutzia.

- Beraz, garai bateko pilota horiek jokorako aproposagoak ziren. Gauza bera esan al daiteke pilotariaren inguruan? Jokalarien kalitatean aldaketarik egon al da?

Ez dut uste konparaketak egokiak direnik. Denborak joan denborak etorri materialak aldatu dira, batez ere, eta gaurko pilotariak horiekin

jolasten ohitu dira. Gaurko handienetako bat duela hogeita hamar urte erabiltzen genituen pilotekin eta eskuetarako babesik gabe jolasten jarriko bagenu, beharbada kalitate horretan alderik ikusiko genuke, batek daki. Baina edozein modutan izanda ere, garai desberdinetan erreferente izan diren pilotariak orain ere izango liratekeela uste dut, baita alderantziz ere. Dena den, konparaketak egitea zaila da oso. Frontoian boladak egon dira, aro bakoitzean lau edo bost pilotari handi egon dira. Pilotan aroak pilotariak beraiek desberdintzen dituzte, azkenengo urteetan Retegi II.ak agindu du, beste garai batean nik agindu nuen, beste batean Gallastegik... Aro bat bukatzen denean handi berri batek ematen dio hasiera hurrengoari.

Izarrik ez

- Zein da Ogetarentzat oraingo pilotari handi hori?

- Duela urte eta erdi Retegi II.a lesionatu zen, ez dakit berriro frontoian ikusiko dugun. Bera izan da azkenengo hamabost urte hauetako pilotaririk nabarmenena. Baina



RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuen"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ



ZIRT EDO ZART

- *Gaztetako leku bat?*

Bernedo, gure aitaren herria.

- *Egin dizuten azken oparia?*

Bizarra kentzeko tresnak eta kolonia.

- *Ardo gorria ala beltza?*

Ez naiz oso ardozalea, zuria.

- *Oroskopoa irakurtzen al duzu?*

Ez, inoiz ez.

- *Momentuko kezkarik handiena?*

Nire semeak, oraindik gaztetxoena ikasten dabil.

- *Zerk ateratzen zaitu zure onetik?*

Gauza gutxi, baina gertatzen denean paso egiten dut.

- *Nola moldatu zara pilota munduan euskararik jakin gabe?*

Ez naiz gaizki moldatu. Pena da txikitan ikasi ez izana, baina gure garaian zaila zen Araban euskara entzutea. Hori bai, bi semeek ondo asko egiten dute euskaraz.

- *Goñi II. Klase handiko mutila da, baina azken boladan ez du aurreratu.*

Hasieratik zituen akatsak ez ditu oraindik zuzendu, beharbada ospea goizegi iritsi zaio.

- *Euskal selekzioa?*

Espainiako selekzioan parte hartzen duten berberak.

momentu honetan pilota munduan aginduko duen izarrik ez dago, ez dago diferentzia markatuko duen jokalaririk.

- Zer iruditu zitzaizun azkenengo lau eta erdiko finala?

- Final ona iruditu zitzaidan, dudarik gabe. Mesprezatua zenak irabazten duenean zirrargarriagoa da oraindik. Kasu honetan Eugi zen argi eta garbi bietatik guztientzat gogokoena, jendearen ustez txapela bururatzeko aukera gehien zituena; baina Unanue erabat gailendu zen. Egun horretan borobila irten zitzaion Unanueri partidua; baina hala ere, horrek ez du esan nahi beste bat jokatu eta Unanuek galduko ez lukeenik. Hau da lehen adierazi nahi nuena, gutxieneko diferentzia dago gaurko pilotarien artean. Gaur batek irabaz dezake, eta bihar besteak.

- Zeintzuk ezaugarri izan behar ditu pilotari baten entrenamendu egoki batek?

- Oraingo enpresek zainduago dute entrenamenduaren kontua, tekniko espezialduak dauzkate eta pilotariak kirolari osoak egiten dituzte. Baina duela gutxi arte bakoitzak egokientzat jotzen zuena egiten zuen. Halarik ere, nire aburuz, gaur egun gimnasioan

denbora gehiegi ematen dute pilotari gazteek. Frontoia gehiago landu beharko lukete. Teknika erdiesteko frontoian trebatzea bezalakorik ez dago; hor eta ez beste inon ikasten da pilotan jolasen. Gimnasioan sasoi fisikoa lortuko da, baina joko honen sekretuak ezagutzeko ordu asko sartu behar dira frontoian.

Nafarroa, etorkizuna

- Eta nola entrenatzen zuen Ogetak?

- Garaikook frontoi asko eta asko egiten genuen. Horrek ez du esan nahi gure korrikaldiak egiten ez genituenik. Eta gimnasioan ere ibiltzen ginen. Gogoan dut Jimenez boxealariarekin batera Herreria kaleko horretan pasatzen genuen hotza; lehengo gimnasioek ez zuten oraingoekin alderik ere.

Handik hona gehien aldatu dena janariaren kontua da. Gaur askoz gehiago zaintzen da jendea, hala kalekoa nola kirolariak. Osasungarriago jaten ikasi dugu.

- Gaurko pilotariez hitz egin dugu lehen, baina nola datoz gaztetxoena?

- Egoera pixka bat onetik irtenda dago. Gazte batek pilotari birritan jarraian eman bezain pronto, honetan dabilzan enpresa gehie-



Ogeta eta Barbero, 1957ko lau eta erdiko finala baino lehenago.

LIBURUDENDA

axular

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

nak botatzen zaizkio gainera. Baina argi eta garbi dago Nafarroa dela momentuan kalitate eta maila altuagoko pilotarien seaska. Eta horren arrazoa argia da, Nafarroan oraindik ere benetako herri izaera duen komunitaterik bada. Eta pilota zerbait baldin bada, herriko jolasa da, ohitura. Hiriko kalekumeak ez daude eskuekin lan egiten ohituta eta pilota gogorra da, min egiten du. Indartsuen dabiltsan pilotari berri gehienak Nafarroako mendialdeko herrixketatik datoz.

- Zein da arabar pilotaren egoera?

- Araban lehen aipatzen nuen arazoa dugu. Eskolek eta Federazioak lan handia egiten duten arren nekez aterako da pilotari onik astean pare bat ordu entrenatuta. Gaurko haurrak arduratuegi daude ikasketak direla eta. Arabak bolada on bat izan zuen orain urte batzuk, baina ohitura galduz doa. Duela hogeihogeita bost urte jende guztiak pilotan jolasten zekien herrixketan; gaur inor gutxik erabiltzen du frontoia. Pilotaren etorkizuna elkarteen, eskolen eta Federazioaren eskuetan dago, esateko gauza asko dute hauek. Gaztetxoenak motibatzea da erronkarik zailena.

- Pilotak dirua ematen al du?

- Telebistaz botatzen diren partiduei esker publizitatea nahiko sartu da pilotaren munduan eta horrek dirua ekarri du. Baina gastuak ere nahikoak direnez pilotariek ez dute aberas-

"Pilota zerbait baldin bada, herriko jolasa da, ohitura"

"Gaztetxoenak motibatzea da erronkarik zailena"

tasun handirik egiten. Eta federazioen lana erakundeetatik jasotzen dituzten dirulaguntzen menpe dago. Baina, egia esanda, pilotan ere, beste kirol batzuetan gertatzen den moduan, denek ez dute berdin kobratzen, bakoitzak jendea erakartzeko duen "gantxoaren" arabera izaten da hori.

Tartekia

- "Gantxoaz" ari garela, zer-nolako "gantxo" izango lukete emakumeek pilotan?

- Emakumeek ederki erakutsi dute pilota jokoetan trebeak direla. Dena dela, eskupilota gogorregizat jotzen dut emakume baten eskuen-



Ogeta erasoan, Marcelino Bergara atzean.

tzat. Palan jolasten eta oso ondo moldatzen ikusi ditut batzuk. Tenisa ere adibide ona da. Ziur naiz Arantxa Sanchez Vicario larruzko paletan jolasten jarriko bagenu markak hautsiko lituzkeela.

- Zer iruditzen zaizu Ogueta pilotalekua?

- Oso instalazio onak iruditzen zaizkit. Fronto bezala, agian, gogorregia izan daiteke eta ez da jolasteko frontoirik egokiena. Bestaldekik, momentu hauetan konponketa txiki batzuk behar ditu; esate baterako, urteen erruz itokinak agertu dira sabaian. Baina finalen bat jokatzeko denean ikuskizun ederra iruditzen zait Ogueta pilotalekua betarik ikustea.

ITURRIETA

Sagardotegia



**2000. urtean, zer?
Sagardo berria, jakina.**

Ka La MUA

TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

Elhuyar

-en eskutik

zientzia eta teknika, zugandik gertu

Tea gaixotasun koronarioen prebentziorako

Rotterdamgo Erasmus Unibertsitatean egin duten ikerketaren arabera, teak gaixotasun koronarioak saihesten lagun dezake. Ondorio hori 3.454 lagunekin egindako ikerketako emaitzak aztertu eta gero ateratu dute. Ikerketaren egileek diotenez, egunero tea behin edo bitan hartzen dutenek % 46 gutxitzen dute arterioesklerosia izateko arriskua, gantza pilatzearen ondorioz arteriak estutzeko arriskua alegia. Tearen onuren arazoia dituen antioxidatzaileak dira, flabonoidak izenekoak. Tean bezala, flabonoidak ardoan eta tipuletan ere egoten dira. Tearen eta gaixotasun koronarioen arteko lotura bitxia gertatzen bada, bitxiagoa da oraindik bigarren ondorioa: onura horiek batez ere emakumezkoetan gertatzen direla. Edonola ere, ikerketa egin dutenak ez dira gai izan esateko teak emakumezkoen zer-gatik egiten dien mesede handiagoa.

Teofilina bizigarria

Tea, berez, landare psikoestimulatzailea da. Te landaretik teofilina ateratzen da, kafeinaren antzeko osagaia, baina askoz ere indartsuagoa. Tea hostoak egosita hartzen denez eta kafea aleak txikituta hartzen denez, haren ezaugarriak ezkutuagoan geratzen dira. Horregatik tearen eragin psikoestimulatzailea txikiagoa izan ohi da.

Kafe-kikara batean batez beste 70 mg kafeina egon daitezke; tamaina bereko te-kikara batean, berriz, 100 mg Neurrian hartuz gero, teak ez dakar aparteko kalterik, baina gehitxo hartuz gero kalteak nabariak izaten dira: urdaileko arazoak, buruko minak, hipokondria, oroimenaren galtzea, arazoak begietan, eta zirrosia. Beraz, beste gauza asko bezala, tea ere neurrian.

Aspaldiko ohitura

Tea hartzeko ohitura ez da atzo goizekoa. Txinan, esate baterako, ezaguna da Kristo aurretik 250. urterako dagoeneko erabiltzen zutela ur irekinari zapore ona emateko. Tearen eta europarren arteko harremana 1497. urtean hasi zen, portugesak Indiara iristearekin batera. Historialariek diotenez, Europara lehen te-kargamentua 1610. urtean iritsi zen, Amsterdama, Sortaldeko Indietako Konpainiaren eskutik. Edari berriaren erabilera laster hedatu zen, baina ez pentsa daitekeen bezain azkar. Holandan eta Ingalaterran egunero eta maiz hartzen hasi ziren —ginebraren ordeaz itxura




batean—, Frantzia gutxixeago, Alemanian kafea nahiago zuten, eta Espainian ez zuen inolako arrakastarik izan. Denborarekin eta Europako merkatarien lanari esker, tea mundu osora hedatu zen, bai landatzeko eta baita edateko ere.

Ingalaterrak du te-hartzaile onenaren ospea, eta arratsaldeko 5etako tearen ohiturak oihartzuna du munduan. Hala ere, te-hartzaile onenak txinatarak dira, egunero munduko gainerako herrialdeetan baino gehiagotan eta jende gehiagok hartzen baitu.

Segurtasunik gabeko energia nuklearra

Azkenaldian energia nuklearrarekin gertatu diren ezbeharre, ezbaian jarri dute instalazio nuklearren segurtasuna. Horren haritik, hango eta hemengo instalazio nuklearren segurtasunari buruzko berri asko ateratzen ari da. Azkena Londresetik dator. Ingalaterrako Derby hiriko biztanleak kezkatuta daude bertan dagoen Rolls-Royce enpresako fabrikak ez duelako inolako segurtasun-neurririk. Derbyko lantegian Rolls-Roycek itsaspekoendako motorrak egiten ditu, baina ez hori bakarrik, motor horien errektore nuklearrendako erreagaia ere bertan egiten baita. Hiritarrek bazekiten fabrika motorrak egiten zirela; erreagaiaren berririk, aldiz, ez zeukaten.





➤ Helburuak

- ✓ Autokontsumorako produktu bat egin.
- ✓ Etxean dauzkagun produktuei beste erabilera bat eman.
- ✓ ... eta noski, ONDO PASA !!!

BAINU GATZAK



- Adina 4-5 urtetik aurrera
- Zailtasuna Txikia



Edalontzi edo ur botila batean sartu gatza. Orain kolorea emango diogu gatzari. Bi era dituzu gatza tintatzeko:

- 3 tanta kolorante bota gatza sartu duzun edalontzian
- Hartu gustuko d(it)uzun klarion kolorea(k) eta orri bat margotzen hasi, klarionekin hautsa lortu arte. Bota, ondoren, gatza sartu duzun edalontzian eta nahastu.



Orain gure bainu gatzei usaina jarriko diegu. Aukeratu gogoko duzun esentzia, bota edalontzian eta nahastu.



Har ezazu zelofan lauki bat eta lortutako nahasketa bertan bota.



Zelofana eta artilea erabiliz, poltsatxo bat egin eta.... Baditugu gure bainu gatzak.



AUPALE ilil! Egin kolore eta usain desberdinetako bainu gatzak.

Lehiaketa

txiki park

Domingo Beltran kalea, 53
01012 Gasteiz - Tnoa. 945 20 00 02

Urtarrileko erantzuna: Urtarrilaren 17an. San Anton Abad, San Anton eguna
Irabazlea: Garazi Ornat Saez de Gordoia • ZORIONAK!

SARIA:

**Txiki Park-erako
2 sarrera**



Nola esaten da "cocodrilo" euskaraz?

Bidali erantzuna lehenbailehen...gure helbidera
(4. orrialdean) Izena eta Telefonoa zehaztuz

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Ez gehiago itxaron,
egin zaitez
gure klubeko bazkide

Martxan dago jada Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) bideratu kanpaina berria. Urtarrilaren bukareraren ekin zioten kanpaina honi eta hile honen amaiera arte luzatuko da. Ez da, ordea, matrikulazio kanpaina soil bat, gizarte osoari zuzendutako sentsibilizazio ekimen berria, baizik. Orain arte 13 izan dira ekimen honekin bat egin duten erakunde eta taldeak, eta guztiek, euskarazko hezkuntza bultzatzeko ardura hartu dute.

Euskarazko Hezkuntzaren aldeko ekimen berria

2000. urtea hasteko EHEk abian jarri berri duen kanpainak matrikulazio kanpaina baten xedeak gainditu nahi ditu. Euskara jakitea denon eskubidea izateaz gain, abantaila asko dakartzala azpimarratu nahi izan du EHEk, eta beraz, gizarte osoari zuzendutako sentsibilizazio kanpaina batekin hori zabaldu nahi izan dute. Ekimen berri honetan EHEz gain, beste hamahiru erakunde eta taldek esku hartu dute: batetik, **IA, BIGE, BAIKARA, IKAS-BI, IKAS-BATUAZ, SORTZEN, STEE-EILAS, LAB, SAREAN** eta **PARTAIDE**-k kanpaina sinatu dute. Eta bestetik, **KONFEDERAZIOA, OINARRIAK** eta **KONTSEILUA**-k beren atxikimendua adierazi diote



ekimen berri honi. Zehaztu gabe dago, bestalde, **ELA, SEASKA, EUSKAL HAZIA** eta **DENON ESKOLA**-ren partehartzea.

Talde horiek guztiak izan dira kanpaina berri honen bultzatzaileak, eta halaxe aditzera eman zuten urtarrilaren 19an Bilboko La Bolsan egindako prentsurrekoan. Ekitaldi horretan aurkeztu zen EHEren ekimen berri hau, eta bertan bildutako erakundeek euskararen hedapena-

ren inguruan sortzen zaizkien gogoeta, kezka eta asmo komun batzuek batzen zituztela jakinarazi zuten. Ildo horretatik, aurreko urteetan egindako hainbat ekimen aztertu, eta azterketa horretatik ondorio batzuk atera zituztela adierazi zuten: alde batetik, euskarazko hezkuntza ezin dela ofizialtasunaren eremura mugatu. Bestetik,



KAMISETAK:

KUKUXUMUSU, KOT, PERRETIXIKOAK BASOAN, BARABÚ...

OPARIAK ETA EUSKAL OROIGARRIAK

EUSKAL OIHALAK: MANTELAK, ZAPIAK...

NON BAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxa: 945 232229
nonbait@nonbait.com

ZURE EUSKAL DEZAK

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

BAR KLAKÉ



KUTXA, 2

TFNO. 143883

GASTEIZ

euskara Euskal Herriko hiritar ororen eskubide indibiduala eta kolektiboa dela. Hirugarrenik, euskararen menperatzea hezkuntzak bermatu behar duela, eta oraingoz ez dela horrelakorik gertatu. Eta azkenik, gaur egungo ereduen politika gainditu beharra dagoela, ez baitu bere helburua betetzen, eta ondorioz, euskalduntzea bermatuko duten murgiltze ereduak bultzatu behar direla.

Kanpainaren muina

Hori guztia oinarri, kanpaina ezberdin bati ekitea erabaki zuen EHEk, eta kanpaina berri honetan honakoa azpimarratu nahi dute: herri orok daukala eskubidea bere sistema propioa eratze-ko eta antolatze-ko. Eta hezkuntzak, kultura guztien oinarri izanik, memoria historikoaren transmisioa eta, ondorioz, herri horren izate eta irautea bermatzen duela. Horretaz gainera, ekimenaren sustatzaileek azaldu zuten, "Euskal Herriko hainbat eskualde eta lurraldetan oraindik eskubide gisa ere onartu gabe dago euskarazko irakaskuntza eta Euskal Herriak, herri bat izanik, eskubide osoa dauka berreuskalduntzeko, eta prozesu honetan hezkuntzak funtsezko papera du". Euskarazko irakaskuntza denon eskubidea izateaz gain, euskara jakiteak abantaila asko dauzkala ere azpimarratu nahi dute kanpaina honen bitartez. Gizabanako eta gizarte osoarentzat izango liratekeen abantaila horiek, besteak beste, honako alorretan islatu-

ko lirateke kanpainaren bultzatzaileen arabera:

-Lan merkatuan: elebitasuna garatzen doan neurrian, bezeroaren eskakizun soilagatik, euskara ezinbesteko baldintza izango delako hainbat lanpostutan.

- **Lanbide prestakuntzan:** *norberaren curriculumaren osagarri garrantzitsua delako.*
- **Onura pertsonalean:** *jakiteak, kultura maila zabalagoa, ziurtasuna eta ongizatea dakarziolako norberari.*
- **Arlo pedagogikoan:** *txikitatik elebidun izateak izugarri laguntzen duelako beste hizkuntzen ikasketan.*
- **Elkarbizitzan:** *euskararen erabilera gauzatzen den egoera edota inguruetan harremanak erosotasunez izaten lagunduko diolako. Eta nola ez, Euskal Herria bere osotasunean ezagutu eta bizitzeko.*

Ekimenaren nondik-norakoak

Aipatu egoera horretatik abiatu da EHEk, beste talde askorekin batera, egindako kanpaina berri hau. Euskarazko irakaskuntzaren aldeko ekimen berri honek euskarri desberdinak erabiliko ditu bere helburuak gizartearen aurrean azaltzeko. Hala nola, Euskal Herriko egoera linguistikoa islatzen duten kartelak; hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelera eta frantsesa) idatzitako triptikoak, non kan-



painaren arrazoiak azaltzen diren; "kuña publizitarioak" irratietan; eta hainbat erakunde eta ikastetxeri zuzendutako gutunak.

Kanpaina aurrera eramateko jardueri dagokienez, kanpainaren sinatzaileek diotenez, bakoitzak egokien iruditzen zaion dinamika har dezake, izan ere, lurralde bakoitzaren egoera kontuan hartuta, herriz herri zein eskualdez eskualde antolaketa desberdinak burutu daitezke.

Bukatzeko, kanpaina honen bultzatzaileek ekimenaren helburuarekin bat datozen edozein erakunde eta talderen partehartzea eskertzen dute. Beraz, adi kanpainari!



Langile guztiak euskaldunak
IKASLE GUZTIAK EUSKARAZ

TOKI EDER IKASTOLA

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako... behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKOA

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER AIZPIOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



52! CANAL GASTEIZ TELEVISION



GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

OMENALDIA
Gasteizko
Euskaltzale
Aitzindari
gogoan

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

"...mahatsaren orpotik dator..."

**Canal Gasteizek
Bertso saioa diferituan botako du
otsailaren 27an**

adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

I P U R B E L T Z

GAZTE euskaldunen komikia

Ikastola edota euskaltegietatik igaro diren 35 urte beherako euskaldun gehienek ezagutzen dute duela 23 urte sortu zen Ipurbeltz hilabete-karia. 1976tik hona euskararen egoera, euskal prentsarena eta irakurleen gustuak asko aldatu dira, baina Ipurbeltzek erreferentzia izaten jarraitzen du... Ipurbeltz-ekin hazitako bost gasteiztarren oroimenak jaso ditugu... erreportaje honetan.



Testua: Leire Lpz. de Aberasturi
Argazkiak: Edorta Sanz eta artxi-



Miel Angel Elustondo. Zuzendaria.

Miel Angel Elustondo Ipurbeltz-eko zuzendariak aldizkariaren sorrerak garai hartan indarrez sortzen ari ziren ikastolekin lotura izan zuela gogoratu du, eta lehen uneko xedea, beraz, irakaskuntzarako behar ziren tresnen beharrarekin bat zetorrela: "Ikastoletako haurrei baliabide bat gehiago eskaintzea helburu nagusia zen, euskarazko material gutxi baitzegoen orduan".

Helburu nagusia hori, baina erronka eta asmo gehiago zituen komikiak 1976an, gazteentzako erreferentzia izan daitekeen hizkuntza bizia eta aberatsa eta ahozko moldeak eskaintzeko ahaleginak egin baitituzte urte hauetan guztietan. Beren lanarekin komikia kalean egotea posible egiten duten artisten gogoak ere zerikusi handia izan zuen Ipurbeltzen sorreran, eta harrez gero komigile eta marrazkilarien harrobi bikain bihurtu da gainera.

Denborapasa aldizkaria

23 urteetan aldizkaria aldatu egin da, garaiekin eta irakurleekin batera aldatu, sortu zeneko ezaugarriak mantendu badira ere. Elustondok denborapasa-aldizkari moduan definitu du zuzentzen duen argitalpena, eta duela hiru urte egin zioten itxura aldaketa dela medio "komiki huts" zena komiki-aldizkari bihurtzea erabaki" zutela azaldu du.

Aldaketaren ondorioz, marrazkilarien lanen ondoan erreportaje eta artikuluei leku egin zien aldizkariak. "Egun baliabide asko dituzte gure irakurleek, informazio iturri piloa. Horregatik eman ditugu argitara Spice Girls-en gaineko artikulua, Lady Di-ren heriotzari buruzkoak edo Donostiako Zinemaldiaren ingurukoak". Komikigintzari lotuta jarraitzen du beraz Ipurbeltzek, baina egunerokotasuna duten gaien inguruko kontuak baztertu gabe, irakurleen nahiak eta eskariak betetzeko beharrezkoak jotzen dituztelako.



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutzi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko konteiko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

Gorka Aginagalde.

Aktorea

"Prontxio, Martxelino eta Mintxok burua altxatuko balute..."



Izen sorta luzea

Bi sailetan ospe handiko kolaboratzaile eta izen ezagunak biltzen ditu Ipurbeltzek. Prentsa atalean, mundu zabalaren berri ematen duten erreportajeekin batera, Kike Amonarrizen "TxikiKIEriak", Enekoitz Esnaolaren kirolari buruzko berriak, Begoña del Tesoren zinema kritikak, Ixiar Orejaren musikari buruzko idatziak eta Xabier Etxanizen literatur kritikak aurki daitezke, besteak beste.

Komiki sailean beren lanak argitaratzen dituzten marrazkigileen artean, berriz, Iñaki Holgado, Querejeta, Mattin, Asisko Urmeneta, Mikel Valverde, Antton Dueso, Jon Zabaleta, Ruben Arozena eta Alvaro Matxinbarrena daude, beste batzuekin batera.

Komiki, denborapasak eta erreportajeen alboan irakurlearen mezuak hartu eta ezagutzera ematen dituen Hitzozkailua sailak osotzen ditu aldizkariaren 32 orrialdeak.

Irakurle bakoitzak izaten du bere sail kuttuna, baina egia da batzuek berebiziko arrakasta lortu dutela. Antton Dueso marrazkigilearen lumatik sortutako Punkik, adibidez, Ipurbeltzetik liburuatarako jauzia egin du eta hiru argitaratu ditu jadanik.

Idoia Zabaleta.

Dantza garaikideko dantzaria



"Niretzat Ipurbeltz bidaia-tzea zen. Ez dut marrazkien irudi finkorik, baina bai sentsazioak... Munduko aldizkari bakarra zen, "Nobel edo Planeta saria" sentitzen nintzen

Ipurbeltzekin, bertan nik bidali zenbait ipuin eta olerki publikatzen baitzidaten... Euskal Herri osoko ikastoletako umeak atal honetan egotea mundu bat zen... Ipurbeltz... sormena zen, erronka... Ikastolarekin erlazionatzen dut erabat... Etxean jasotzen genuen, baina ez dakit hilero zen edo..."

Irakurle gazteak

8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilak dira Ipurbeltzen irakurle gehienak eta maketazioa, hizkera eta gaiak beraien nahiak hautatuak direla ikusten da lehenengo begiradan. "Hala ere, hilero egiten dugun inkestak adin horretatik gorako irakurleak ere baditugula" erakusten duela dio Miel Angel Elustondok. Neska-mutilen etxeetara iristean gain, ikastetxe ugari ere helmuga du aldizkariak. "Eta Tamagochia, udalekuak edo Spice Girls taldeari buruzko artikulua DBHko geletan eztabaidetarako oinarri moduan erabili dituztela esan digute".

Alvaro eta Igor Gonzalez de Galdeano. Txirrindulariak



"Uff!". Horixe Alvarok botatakoa Ipurbeltz gogoan duen galdetzean. Hala ere, ikastolan behin baino gehiagotan irakurri ohi zuela gogoratzen duela erantzun du segidan. "Eta ez bakarrik ikastolan, uste dut etxean era jaso genuela garai batean". Ez da harritu Ipurbeltzek 23 urte bete dituela esatean, kioskoan sarri ikusi duela-ko, baina gustuak haztean aldatzen direla eta, ez du umetatik berriro irakurri. Igorrek ere gogoratzen du ikastolan irakurritako komikia, "baina urte asko pasatu dira eta gogoko nuela badakidan arren ez dut pertsonaiarik edo bereziki gogoratzen". Ipurbeltz ez, baina komikiak oraindik ere irakurtzen dituela dio txirrindulari gasteiztarrak, "eta orain ez horrenbeste, baina oraintsu arte dexente".

Hartzaile multzo handiena 8 eta 12 urte bitarteko gazteak direla kontuan hartuta, sorrera garaiko helburu nagusienetako zen euskarazko ahozko molde bizia eskaintzea garran-tzi-tua da oraindik egun.

Haztea helburu

2.500 etxetara iristen da Ipurbeltz urtean hamabitan. Irakurle gehienek harpidetzaren bitartez jasotzen dute hilabeteroko euskarazko komiki dosia; hala ere, zabalpenerako beste bideetan ere saiatu dira aspalditxo honetan, kioskoak,



liburudenda eta liburute-giak, euskararen jaiak, ikastetxeak,... "Promozioa dut nik azken urteetako erronkarik inportanteena eta aldizkariaren produkzioak adinako lana ematen digu", aitortu du zuzendaria. Publizitate gabeko aldizkaria da Ipurbeltz eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren babesaren arren haztea helburua baino gehiago beharra ere bada.

Hala ere, merkatuan leku handia egitea ez da lan makala, euskarazko komikigintza lantzen duten bi aldizkari baizik ez dauden arren, Ipurbeltz bera eta Napartheid, merkatuan denetarikoa aldizkari eta argitalpenak daudelako.

Haur eta gaztetxoentzako kultur produktuak ekoizten lan egiten duten beste askoren antzera, kexu agertu da Miel Angel Elustondo beste argitalpen batzuek besteko errespetua lortzea latzago egiten zaielako. "Ikastolen jaialdietan, esaterako, Xirrixa eta Kometa aldizkariekin batera Haur Prentsaren standea ezartzeko oztopoak jarri dizkigute, zenbait lekutan aldizkaria sartzeko eragozpenak ere izan ditugu..."

2000. urtearen hasiera aurrera begira jarri eta etorkizuneko erronkak finkatzeko une egoki bezala aurkeztu dutenez, Ipurbeltzeko zuzendariari ere beraien asmoen berri emateko eskatu diogu. Erantzunak hiru ardatz ditu: harpidetzak, marrazkilariak eta, nola ez, internet. "Harpidetzak gehitu, marrazkigile finen harrobi izaten iraun eta interneten leku bat egin nahi dugu".

Igone Martinez de Luna. Eako legebiltzarkide ohia

Gurasoen etxean dauden Ipurbeltzeko ale zaharrak ondo gordetzeko eskatu berri dio Igone Martinez de Lunak amari, laister kolore bizietako marrazki ederrek alaba txikiaren arreta erakarriko dutelakoan.



Martinez de Lunatarren etxean hasiera-hasieratik izan ziren aldizkariako harpidedunak. "Aurretik Kili-Kili hartzen genuen, baina Ipurbeltz ezagutzean horren alde egin genuen hiru ahizpok, eta etxera heltzen zen bakoitzean ia-ia borrokatzen genuen lehenago nork irakurriko zuen erabakitzeke". Irakurtzen zuen garaian aldizkaria moderno eta atsegina zela gogoratu du, eta euskara batua lantzeko tresna egokia.

- X Duela 23 urteko Durangoko Azokan kaleratu zen lehen aldiz.
- X 2.500 etxetara iristen da, kasu gehien-gehiene-tan harpidetza bidez.
- X 8-12 urte bitarteko neska-mutilei zuzendutako aldizkaria da berez, baina irakurle helduagoak ere baditu.
- X Sorrerako garaian hamabostekaria izan zen; gero eta gaur egun arte, hilabetekaria.
- X Euskal komikilarien harrobia izan da Ipurbeltz. Eta bertan hasi ziren asko marrazki bizidunetan, liburu ilustrazioetan edota Euskal Herria zein Europako komikigintzan dabilta egun.
- X Duela hiru urte egindako aldaketaren ondoren bi zati ditu aldizkariak: prentsa saila eta komikiarrena.
- X Irakurleen asebetetasuna hileroko egiaztatzen du Ipurbeltzeko taldeak hogeitak irakurleri egindako inkestaren bitartez. Inkestak DBHko ikasle batek egiten ditu, bere ekimenez eta ikaskideen laguntzaz.
- X Promozioa finkatzea etorkizunerako erronka garrantzitsuenetakoa da. Interneten ere laster irakurri ahal izango da Ipurbeltz.
- X Miel Angel Elustondo, GEU GASTEIZeko aspaldiko kolaboratzaile eta laguna da Ipurbeltzeko zuzendaria.

GEU ELKARTEAREN ESKUTIK... BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

OTSAILAK 26. PRINCIPAL ANTZOKIAN, 20:00etan
"...MAHATSAREN ORPOTIK DATOR..."
GASTEIZKO EUSKALTZALE AITZINDARIAK GOGOAN

- Egunean bertan,
Principal Antzokian: 1.100 pta.
- Aldez aurretik: - Arrunta: 900 pta.
- Bazkide eta harpidedunak: 700 pta.

*ALDEZ AURRETIKO SALMENTA TOKIAK:

AXULAR ETA ARRIAGA LIBURUDENDAK

***GEU ELKARTEKO BAZKIDE ETA ALDIZKARIKO
HARPIDEDUNENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA:**

***ALDIZKARIKO AZALEAN IZKINEAN DAGOEN HIRUKIA
MOZTU ETA HORREKIN BAZKIDE ETA HARPIDEDUN
BAKOITZAK 2 SARRERA EROS DITZAKE
- ALDEZ AURRETIKO- PREZIO BEREZIAN, 700 PEZETAN**

**Eta hurbildutakoen artean BI LAGUNENTZAKO
AFARIA ZOZKETATUKO DA!!! ZORTE ON!!!**



euskara harat honat

Neguko nortasun krisiak

Siberia-Gasteizen bizi ondoren badirudi edozein lekutan negua pasatzeko prest zaudela. Hori uste nuen nik ere hona iritsi arte. Total, -10 edo -30 gradu artean ez zen izango diferentzia gehiegi...; bi kasuetan kristoren hotza! Orain ikasi dut alde handia dagoela. Ni ez naiz gehiagotan Bryce Etxenikeren nobeletan agertzen diren euskaldun horietako bat izango, hotzari fresko esaten diotenak. Gasteizen ikasten nengoelarik, bai, niretzat fresko bakarrik zen eta askotan, nahiz eta egundoko hotza egin, nire jertse granatearekin kale-ratzen nintzen eta kitto!

Agian urteak izango dira, baina orain ez dut horrelakorik egiten. Jertsearen gainean, baita azpian ere, arropa piloa daramat. Hobeto esanda: hotza hasten denean tipula bihurtzen naiz. Kalera atera baino lehen telebista jartzen dut eguraldia jakiteko: graduak behera, kapak soinera! Lehenengo, bizpahiru kamiseta, gero nikia, alkandora eta jertsea eta honen guztiaren gainean forro polar lodia eta behar baino pare bat taila handiagoa. Zangoak ere zaindu behar dira, beraz, gal-tzen azpian kaltzonzilo luze antze-


rako zerbait. Oinetan bi galtzerdi pare gutxienez, eskuetan eskularruak, aurpegian bluffa eta buruan txanoa. Benetan Michelinen irudia errealitate bihurtuta!

Imajinatu, hainbeste jantziekin ibiltzea ez da erraza. Batez ere, espaloiak elurrez edo izotzez beteta daudenean. Missourin bertan ez du elur gehiegi botatzen, baina izotza edozein egunetan aurki dezakezu. Eta hori bai gorrotatzen dudala! Putzuak 'belaxen' izozten dira eta nahiz eta elur gehiegi ez egin, botatzen duena berehala jeltzen da eta betiko duzu kaleetan. Bestetan, lurra hain hotz dago euria egiten

duenean ura, lurra ikutzean, segidan leitzen dela (Gabonetan Gasteizen jarri zuten izotz-pista bezala). Egun horietan kalera irten naizen bakoitzean "Famosa pan-pina" Jesusen portalera hurbiltzen sentitzen naiz. Haien eta nire pausoan luzera antzekoa da, baina beraiek ni baino azkarrago doaz.

Horrela jantzita kalera ateratzen den emakumea ezin dut Maitetzat hartu. Zaila da arropa mordo horren azpian pertsona aurkitzea... Agian, arroparen zamak edo txanoaren estutasunak burmuina gehiegi lauskitzen dit eta ez naiz pentsatzeko gai... Edo, agian, hotza baizik ez da izango, baina ni ez naiz kalean irristatzen dabilen fardo hura... Hori urtarrila eta otsaileko amesgaiztoa besterik ez da. Martxoan, berriz, epeltzen duenean, tipulatxoa zuritzeari ekiten diot. Pixkanaka-pixkanaka uzten ditut kamisetak, eskularruak, bluffa, txanoa eta gainontzekoa eta nire baitara itzulzen naiz. Egun horietarako armairuan prest daukat nire jertse granate zaharra...

MAITE
NUÑEZ-BETELU
EEBB-etatik



UNAI GARTZIA

"Bizitzari dena eskatu behar zaio"

-Duzun biziorik handiena?

Jatea..., ah!, eta dutxan denbora asko egotea.

-Zenbat da asko?

Ordu erdi.

-Eta bertutea?

(Asko pentsatuta) Nik uste ez dela ona norberaren bertuteak esatea, ezta?

-Zer eskatzen diozu bizitzari?

Beno hobe "zer ez diodan eskatzen", ez? Ze bizitzari dena eskatu behar zaio.

-Zer eskatzen du herriak?

Askatasuna. Bere nortasunaren errekonozimendua, bizi-maila on bat izatea...

-Jeniorik ba al duzu?

Batzuetan bai, ateratzen

baldin bada..., baina normalean ez.

"Prontoa" badaukat, baina besterik ez.

-Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Faltsutasunak, hipokresiak, ignorantzia.

-Geu-ren berririk ba al daukazu?

Bai. Aldizkaria atera zenean, duela 7 urte, lehenengo alea ikastolara bidali zuten eta ikasleok bertan banatu genuen. Lehen harpidedun nintzen eta jasotzen nuen, orain, ordea, ez.

-Egunkariren bat?

Etxean GARA irakurtzen dugu. Baina esan behar dut GARAn faltan botatzen dudala euskara gehiago erabiltzea eta Arabako gehigarria izatea.

-Pelikula onen bat?

Titulu bat baino gehiago... nik esango nuke entretenitzen nauen edozein gustuko dudala.

-Telebista programarik?

Buff!!, telebista ikusten dut, baina ez dut bat bereziki atsegin... Beno, kirol programak ikustea gustatzen zait.

-Jaki goxoren bat?

Buff..., pilo bat dira gustatzen zaizkidanak!! Ez dakit..., guztia gustatzen zait..., barazkia ez den edozer



gauza..., adibidez, babarrunak. Ah!, eta "Casadiella" k, duela asko jan nituen, Asturiaseko goxo bat da.

-Zure gorputz atalik politena?

Ja, ja!!... Zer nolako galderak egiten dituzun!! Ez dakit... Oinetako behatz lodiak... Ez, benetan, ba igual nire "perilla".

-Musika talderik gustukoena?

Ez daukat bat bereziki. Gero eta gutxiago entzuten dut musika, gainera. Lehen Haur Txarrak asko entzuten nuen, baina orain ez dut bat bereziki.

-Txikitako oroitzapenik?

Lehen futboleko jolasten nuen, eta esaten zidaten nahikoa ona nintzela.

-Oporrak non eta zertarako?

Munduari bira ematen. Jende berria eta toki berriak ezagutzeko.

-Zein liburu ari zara orain irakurtzen?

"Ipuin erotikoa". Idazle euskaldun desberdinek idatzita.

-Idazleren bat?

Ez dut sekula irakurri idazle berberaren liburu bat baino gehiago. Beraz, bat ere ez. Irakurtzen ditudan liburu gehienak, gainera, Historiakoak dira.

-Munduan den denbora guztia izanez gero, zer edo nora edo zertarako?

Munduan zehar bidaiatzeko.

FITXA TEKNIKOA

➤ Gasteizen jaio zen Unai Gartzia Solozabal 1978ko martxoaren 4an, beraz, 21 urte ditu. "Gartzi" ezizenaz ezagutzen dute bere lagun guztiak. Ama bizkaitarra dauka, Bolibarrekkoa, eta aita Gaztelakoa.

➤ Euskara etxean ikasi zuen. Eta etxeko guztiak, aita izan ezik, euskaldunak dira. Lau anaia-arreba dira, eta bera hirugarrena da.

➤ Ariznabarra auzoan bizi da, bere ustetan "Gasteizko auzorik bereziarena". Berak azaltzen duenez, "alde zahar eta berri bat dauka. Alde zaharrean jende guztiak elkar ezagutzen du, eta berrian, berriz, jendea soilik lo egitera doa".

➤ Historiako 4. mailan dago, eta espero du ikasketak aurten bukatzea. Lana aurkitzea, ordea, zailagoa ikusten du. Baina lan egitekoan irakasle moduan egitea gustatuko litzaioke.

-Gasteizen biziko ez bazina, non?

Inon ere ez. Alegia, mugitzen joango nintzateke munduan zehar.

-Gasteizek duen onena?

Dena dagoela eskura, ez baita txikia, ezta handia ere.

-Eta txarrena?

Alkatea. Eta ezjakin asko eta denetaz paso egiten duen jende asko dagoela.

-Euskaraz bizi daiteke Gasteizen?

Ni bai, ni mugitzen naizen tokitik jende guztiak dakielako. Bizi daiteke, baina giro euskaldun batean bizi ez denak ez dut uste ahal duenik.

-Zer nahiko zenuke jendeak esatea zu hil eta gero?

Ezer ez. Beno, jendea nirekin gogortzea besterik ez nuke nahi.

-Zein duzu momentuko kezkarik handiena?

(Isilunea) Orokorrean, politikoki Euskal Herriarekin zerikusia duen guztia. Eta pertsonalki, karrera amaitzea eta lana aurkitzea.

Hizkuntzak biziberrituz

Eremu Urriko Hizkuntzen Biltzarrak zer diren hobeto ulertzeko denboran 20 urte atzera egin beharko genuke. Izan ere, lehenengo Biltzarra Eskozian (Glasgow) antolatu zen 1980an, eta hurrengoak Finlandian, Irlandan, Frisian, Galesen eta Polonian burutu dira. Orain hiru urte, Josune Ariztondo, Hizkuntza Politikarako Sailburuordea, Gdansk-en egin zen Biltzarrean izan zen, eta Eusko Jaurlaritzaren izenean VII. Biltzarra Euskal Herrian antolatzeko ardura hartu zuen. Biltzar hauek hizkuntza gutxituen egoera eta aukerei buruzko gaiak aztertzeko topagune eta eztabaida-leku izateko sortu ziren. Orain arte Biltzarrak hiru urtetan behin egin dira, baina sorta-

razi duten interesa ikusita, azken Biltzar honetan erabaki da hemendik aurrera bi urtetan behin egitea. Beraz, hurrengo zita 2001. urtean izango da. Nazioarteko Biltzar hauek ikuspegi desberdinetatik eremu urriko hizkuntzen inguruko gaiak jorratzen dira, eta Biltzar bakoitzak gaiaren ikuspegi orokorra galdu gabe alor monografikoren bat izaten du ardatz. Bilbon egindakoa, adibidez, Hizkuntza Biziberritzeko Saioak izan zen gai nagusia. Biltzarrean bildu zirenen artean ikertzaile, unibertsitateko irakasle eta ikerlari, hizkuntza politika gaietarako arduradun, eta oro har eremu urriko hizkuntzekin zerikusia zuten pertsonak

Abenduan Eremu Urriko Hizkuntzei Buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian. Orotara, bost kontinenteetatik etorritako 426 aditu bildu ziren bertan, eta eremu urriko hizkuntzen biziberritze prozesuak aztertzen aritu ziren hiru egunez.

zeuden.

Hitzaldiak eman zituzten hizlari nagusiak, bestalde, honakoak izan ziren: Joshua Fishman, Yeshivako Unibertsitatekoa; Lluís Jou, Kataluniako Generalitatekoa; Colin Williams, Cardiffeko Unibertsitatekoa; Xabier Aizpurua, Eusko Jaurlaritzakoa; eta Jean-Claude Corbeil, Quebecoko Gobernuakoa.

AURRENEKO EGUNA: Ekitaldi Ofiziala eta Fishman nagusi

Abenduaren 1ean, goizeko 10etan eman zitzaion hasiera Biltzarrari ekitaldi ofizialarekin, bertan Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua egon zelarik.

Behin ekitaldi ofiziala amaituta, hitzaldiei eman zitzaion pasoa. Lehendabizikoa, eta erakarri zuen jendetza ikusita interes handiena piztu zuena, Yeshivako Unibertsitateko Joshua A. Fishman israeldarraren mintaldia izan zen. Den den, bera pertsonalki ezin izan zen etorri osasun arazoak zirela medio, eta bere ordez Richard Bourhis Konferentziako Batzorde Zientifikoko lehendakariak

irakurri zuen haren hitzaldia: "Zergatik da hain zaila galtzeko arriskuan dagoen hizkuntza bat iraunaraztea?". Fishman-en arabera, galtzeko arriskuan dauden hizkuntzek funtzioen bereizketa egiten dute ezinbestean. Eta

galtzeko arriskuan dauden hizkuntzak eremu funtzional murriztu eta nahasia dutelako daude, hain zuzen, egoera horretan. Bestetik, hizkuntza kultura baten parte, eta kultura hori atxikitutako nortasun etnokulturalaren parte dela nabarmendu zuen Fishman-ek.

Irakasle israeldarraren ostean beste 4 aditu aritu ziren lanak aurkeztzen, eta guztien artean euskaldun bakarra: Patxi Juaristi. Juaristik "Munduko hizkuntzei buruzko txostena" aurkeztu zuen jendaurrean. Bere lana UNESCOren proiektu bat zen, eta Juaristik azaldu zuenez bi helburu zituen: alde batetik, munduko hizkuntzen deskribapen dokumentatua eta zehatza egitea; bestalde, hizkuntzen egoera eta dinamika argitzeko informazio objektiboa eskaintzea xede zuen diagnostika ematea, euren ezagutza, erabilera eta bilakaeraren gaineko datuak plazaratuz.

Euskaldunen bilakaera 1981-96, adinaren arabera
Evolución de los euskaldunes 1981-96 por grupos de edad



Nafarroan ere euskararen erabilera gora doa pixkanaka-pixkanaka grafikoan ikus daitekeenez.

BIGARREN EGUNA: Katalana eta euskara protagonistak


Abenduaren 2an, Lluís Jou Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikarako zuzendariarekin hasi ziren hitzaldi nagusiak. Eta bukatu, euskaldun batekin, Xabier Mendiguren Kontseiluko kidearekin bukatu ziren. Lluís Jou-k gaur egungo katalanaren egoera zein den azaldu zuen. Katalanaren ezagutzari dagokionez, Jou-ren aburuz, Generalitateko Gobernuaren politikak fruitu onak eman ditu, eta katalanak esparru jakinetan duen presentzia ere positiboa dela baieztatu zuen.

Lluís Jouren ostean Euskal Herriko zazpi ikerlarik egindako azterketa bat ezagutzeko parada izan zen. "Gazteak eta euskara Euskal Herrian" izenburupean, ikerlari taldeko kideek gazteen arteko euskararen erabileraren berri eman zuten. Azterketa hura gazteen artean egin izanak euskararen egoera soziolinguistikoaren bilakaera aurreikusten lagundu ziela adierazi zuten.

Azkenik, Euskararen Erakundearen Kontseiluko Xabier Mendiguren Kontseiluaz mintzatu zen. Oro har, esan zuen Kontseiluak garrantzi berezia ematen diola gizarte mailan ahalik eta bat etortze zabalena lortzeko, eta ekintza instituzional eta sozialaren arteko uztardurari. Zentzu horretan, euskalgintzako talde desberdinak beren buruaz eta elkarren arteko harremanez egiten ari diren hausnarketa eta eztabaida ere garrantzi handikotzat jo zuen Mendigurenek.

Xabier Aizpuruak Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren lerro nagusiak azaldu zituen azkenengo egunean. Grafiko honek EAEko euskaldunen bilakaera azaltzen du 1981tik 1996ra bitartean. Bertan ikus daiteke EAEko 80ko hamarkadaren hasieran euskararen erabilera normalizatzeko hartutako neurriei esker, euskararen etengabeko galera eten dela, eta XX. mendean nagusitu den beherako joera horri buelta eman zaiola. Horrek erdaldun elebazarren atzerakada ekarri du.

Euskaldunen bilakaera 1986-96, adinaren arabera
Evolución de los euskaldunes 1981-96 por grupos de edad



Euskararen Nazioarteko Egunak aipamen berezia izan zuen Biltzarraren barruan

AZKEN EGUNA: Euskararen eguna eta Quebec-ekin hitzarmena

Biltzarraren azken egunean, abenduaren 3an, ondorioak ateratzeko balio izateaz gain, Euskararen Eguna ospatu eta Eusko Jaurlaritza eta Quebec-eko Gobernuaren arteko hizkuntza gaietarako hitzarmena sinatu zen.

Euskararen Nazioarteko Egunak aipamen berezia izan zuen Biltzarraren barruan. Izan ere, 1949ko abenduaren 3an Euskararen Eguna mundu zabalean barreiatutako euskaldunek eta euskal jatorrikoek egin zuten, eta hori berreskuratzeko asmoz ospatu zen abenduan Euskal Herrian.

Baina, egun horrek eman zuen gehiagorik. Eusko Jaurlaritzak eta Quebec-eko Gobernuak hizkuntza gaietarako lankidetzak hitzarmena izenpetu baitzuten.

Hori guztia izan zen, labur-labur esanda, Biltzarrean jasotakoa. Munduko eremu urriko hizkuntzen egoera zein den jakinarateaz gainera, esperientzia desberdinak elkartrukatzeko parada ere eman zuen Bilbon egin Biltzarrak.

HURRENGO ZITA, DATORREN URTEAN, BREITAINIAN.

Nomada norvegiarrak Gasteizen: "free people", askeak besterik gabe

Walker eta Marian nomada norvegiarrek Gasteizen emandako bizpahiru egunetan hamaikaxo lagun harri eta zur utzi zuten hiru asto eta bost zakurrekin hiria alderik alde zeharkatzean. Udalak behartsu eta itxura txarreko pikaro oro erdigunetik kendu nahi zituela zabaldu eta berehala, hain justu, Erdi Aroko erromesen moduan jantzitako zoro hauek etorri gainera!!! "Itxura zarpailtsu horrekin... gizakiak hainbestearaino hondoa jotzea ere... lotsagarria", dio bere artean harrituta edo espantuz paretik pasatzen zaien hiritar "dotoreak". Foru plazan sinpatiaz eta jakinminenez hurbildu zaizkie langile erretiratuak.

"Norvegiarrak, ei?... Eta nora doaz? Santiago bidea egiten ari dira eta gero Portugala, eta gero Afrika... Aizu, galdeiozu gizonari!... lepotik zintzilik daramatzen letagin horiek..., basurdearenak izango ote dira?": Bai, jauna... Halaxe dio Walkerrek, behintzat. Senar-emazteok 18 urte omen daramatzate bizimodu ibiltari honetan. Lillehamer-ekoak dira, Neguko olinpiadak zirela eta sona handia lortu duen hiri norve-



giarrekoak. Etxekoekin harremanik bai? Noizean behin telefonoz deitu eta... Norvegian dena berdin... Nobedaderik ez. "Aspergarria al da Norvegia?". "Ba... bai".

Europar baino ez dira ibili, halere. Kontinentez aldatzeko "troupe" osoa itsasontziz eraman behar... (Astoak: Katerina, Desiree eta Rosalita. Zakurrak: Rakur, Puntxa, Hitzegitze, Troll eta Tokaskrokel). Eta garestitxo ateratzen zela... Beraz, Uraletatik laster bisitatuko duten Gibraltarreraino, Normandiatik Peloponesoraino Europa oso-osorik ezagutzen dute. Tira, Albania eta Erresuma Batua ezik. Lotarako... basoan narru-pilazko ohe mardulak egin eta zuhaizpea sabai. Halako animalia taldea nekez onartuko diete ostatu edo ater-

petxeetan. Eta jateko? Jornalari gisa dirua lortu lore edo fruitu bilketan... Jendeak bidean emandakoa... Ehiza, arrantza...

Eta nola definitzen dute euren bizimodua? "Free people", aske bizi nahi dutela, besterik gabe. Duela 18 urte hasi zen guztia. Walker zubiak eraikitzen zituen ingeniaria omen zen. Marian konputagailu data teknikaria. Senarrak izan zuen idea. Emazteak eman zuen azken urratsa: "Egun batean ugazabari gaiso nengoela eta medikuarenera nindoala esan nion. Berak orduan ezetz..., lana neukala eta biharamunerako uzteko medikua... Orduan nik, ... a bai? Hemen duzu bulegoko giltza. Agur!..."

Nik ere agutzerakoan telefono zenbakia eman diet: "Afrikatik bueltan Gasteiztik pasatzen bazarete... deitu". Eta Marianen erantzuna: "Bizpahiru urte barru hemen izango al zara zu?"... "Ba... hala uste dut... Zuek bezalaxe mundua kurritzen hasiko naiz agian...". Txantxetan, noski. Hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila Lillehamer-eko plazan. Eta Lillehamerren badago plaza-rik... Baina Walker eta Marian ez dituzue puska batean han ikusiko. Txikitxo da non-bait...



etxean jaso nahi dut



Izena

Abizenak

Helbidea

P.K.

Herria

Herrialdea

Bankua/Kutxa

Titularra:

Kontu zk. (20 dijitoak)

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ



Mauro Entrialgo • Gasteiz, 1965

- ✓ Irudigile eta komikigilea:
- El Víbora, TMEO, Primera Linea, Makoki, EGM, Interviú...; Diario Vasco, Diario 16, Egin, El País...
- ✓ Hainbat diskoren azalak eta kartelak
- ✓ 9 tebeo-album
- ✓ Erakusketa ugari
- ✓ Gidoigilea: Telebista eta 3 antzezlan
- ✓ Musikaria: "Fats Esteban con Juanjo Pedregosa", "Esteban Light"



Testua: E.B.Z. • Argazkiak: E. S.

MERKURIO-KADMIOMAN %0a

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

**CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

RAMON, PAQUITA, SENARRA... MUSIKA ETA ANTZERKIA UZTARTUZ

Ramon, aktorea.

**Betidanik zuen
Ramonek amets
aktore lanean jardutea, baita lortu ere.
Bere bizitzari buelta**

emango zion

**Antzerki Eskolan
sartu ondoren gasteiztar honek kafe-
antzerkiak eskaintzen zion aukera
ezin hobeari heldu zion, laster Ramon
emakume izenez ezagutaraziko zuen
ikuskizunak oihartzun handia lortuko
zuelarik lagun, adiskide eta batez ere,
ikusleen artean.**

**Gauzak horrela,
Paquita la del barrio hastapeneko funtzioak
'El marido de la Paquita' antzezlan
berriari bidea ireki dio.**

*Ruben, musikaria,
'El marido de la Paquita' saioan*

"PAQUITA goitizenez ezagutzen naute jada Gasteizen"

Ramonek atzean utzi zituen bere tabernari egunak eta gustukoa zuenarengatik apustu egitea erabaki zuen. "Antzerkiak eskatzen zuenagatik, ikasketak Madrileko Eskolan burutzea alegia, ez nintzen hasiera batean mundu honen barnera abiatu; ondoren jakin nuen Gasteizen ikasteko aukera nuela, eta graduadoa atera bitartean antzerki ikastaroetan hasi nintzen, eta horrela gaur egun arte!". Bere kontura zerbait egiten hasi eta Paquitaren ideia sortu zen. Aktore honek gogoz heldu zion

Testua: Josune Velez de Mendizabal
Argazkiak: Edorta Sanz

bere lanbide berriari, eta aukeratutako pertsoniarekin gustura zegoenez tabernaz taberna aurkeztu zuen funtzioa. Ramonen esanetan, "ez zait gaizki joan, baina egia da hau lortzeko asko mugitu behar izan dudala...; beno, azken finean nire lana da...".

Mexikoko emakume abeslari bat

Paquitaren atzean Ramon bera, aktorea, pertsona baino ez dago. "Antzerkia, nire pertsonaia alegia, iritziak ikuspegi ezberdin batetik kalera-
tzeko bitartekaria da; bizitzeko beste modu bat besterik ez". Horregatik, gasteiztarrek Mexikoko emakume abeslari horren izena hautatu zuen eszenatokian, haren, bien, gertaerak azaltzeko. "Paquita la del barrio bertako kantaria da, amodioaren inguruko kantak abesten ditu; izan ere, Paquitak aski ondo ezagutzen ditu maitasunaren alde onak eta txarrak. Bihotzeko mina nuen nik Paquitaren pertsonaia interpretatzea erabaki nuen garaian, horregatik hain zuzen ere gustura nengoen berarekin". Hala eta guztiz ere, Ramonek azaltzen duenez, ikuskizunearan emakumearen bizitza kontatzen bada ere, obra ez da inolaz ere abeslariaren historiaren isla. Bestetik, gazteak emakumeek jasotzen dituzten tratatu txarren kritika egiteko aprobetxatzen du.

Ramonek kontatzen duenaren arabera, gizon gehienak aukera txikiaren aurrean ere emakumez jantzen dira. "Nire ustez pertsona orok emakume nahiz gizonezko-alde bat du, eta dirudienez berari ez dagokiona ezkutatzeko joera dago, horregatik emakumetaz suna tabua da gizonezkoentzat". Honetaz gain, Ramonek azpimarratzen du jendeak oraindik ere pentsatzen duela emakumez jantzea burutik sano ez zauden seinale dela. Ramonen kasuan Antzerki Eskolan zegoenean emakumezko baten pertsonaia antzeztea egokitu zitzaion, eta oso esperientzia txarra izan zen; harrez geroztik, oroitzapen hori ahazteko beste emakume baten azalean sartu zen, egun guztiok aski ezaguna dugun Paquitarenean, alegia.



- Ramon Gil Soleira
- Aktorea
- Gasteizen bizi da.

• A Coruña jaioa izan arren, hoge eta hamar urte dira gazte hau Gasteiza bizitzera etorri zela; ordutik Ramonek gasteiztartzat du bere burua, eta irribarrez aitortzen du A Coruñarekin ez daukala zeri-kusirik.

• Ramon hogeita lau urterekin hasi zen Gasteizko Antzerki Eskolan -TAE-, eta bertan hiru urtez izan ondoren bere burua Paquita goitizenez ezagutzera eman duen ikuskizuna lantzen hasi zen. Hiru urtez Paquita la del barrio funtzioa tabernaz taberna eta herriz herri aurkezteaz gain, Ramonek Pikor Teatro, Paraiso Teatro eta Valladolideko konpainia batekin ere lan egin du. Egun, beste gauzen artean, bere publikoari Paquitaren senarra aurkeztu dio El marido de la Paquita izeneko funtzioarekin.

- Zein da Paquita?

- Paquita bizitza aski ondo ezagutzen duen emakume heldua da, mundu hone-tako alde txarra zein ona ezagutzeko parada izan duen abeslaria. Horregatik, eta egoeraren arabera hain zuzen ere, pozik nahiz triste agertzeko aukera eskaintzen duen pertsonaia dugu Paquita.

- Zer abesten du?

- Paquitak antzezlanetan kantatzen dituen abestiak zinta batek jasotzen ditu; bertan amodiozko zortzi bolero aurki daitezke. Senarrak, bestetik, tangoak abesten ditu, baina honek oraindik ez du musika lanik kaleratu.

- Beraz, ba al dauka Paquitak bizitza zeinekin partekatu?

- Bai, izan ere, bere senarrarekin bizi da. Halere, honek buruhauste ugari sortarazten dio emakumeari. Paquitaren senarra jokoan zalea eta bere emaztearen kontura bizi den lotsagabea da. Haatik, jendeak begirunea dio gajoari eta begi onez dakusa...

- Nolakoa da Ramon?

- Ramon Paquita eta honen senarraren bitarteko zerbait da, gorrotoa, maitasuna... Izan ere, nik sortu ditudan heinean pertsonaiek Ramonen ezaugarriren bat izango dute, ezta?

- Nola apaintzen da Paquita?

- Batetik, ia emakume gehienak bezala,

Paquita dotoreziaz eta tentu handiz apaintzen da bere ikuskizunetarako; horretarako ezinbestekoa du makilajea. Bestetik, lentejuelaz jositako bi soineko ditu, bata urdina eta bestea gorria. Jantziak nire amak eta arrebak egin zizkidaten..., oso ondo moldatzen dira jostun lanetan eta laguntza handikoak ditut biak, izugarri laguntzen didate. Hasiera batean jantziak niri bururatu bazitzaizkidan ere beraien ideiak garrantzi handikoak izan dira, askotan nahi ditudan gauza asko ezin baitira egin. Hortaz, elkarlanari esker ondo moldatzen gara, eta gainera nik fede handia daukat beraian.

- Etxeko ispiluaren aurrean aritu ohi al da kantuan gure Paquita?

- Ez, funtzioa Ikuskizunaren Pabilioi Teknikoan prestatzen da, Artapadura kalean.

- Zeintzuk izan dira Paquitak ezagutu dituen lekuak?

- Funtzioari esker Ramonek zein Paquitak Estatuko Iparralde osoa ezagutzeaz gain, Lleida, Extremadura, Valentzia eta Madril bisitatzeko aukera izan dute. Andaluziara joatea gustatuko litzaide, han badakit arrakasta handia izango lukeela ikuskizunak, baina urrun dago kafe-antzerkia egiteko. Haraino joateak gastu handia dakar eta taberna batean diru gehiegi ezin duzu eskatu.

Honetaz gain, eragin edo arrakasta handiena Gasteizen lortu du Paquitak, "jendeak jada Paquita goitizenez ezagutzen bainau", zioskun Ramonek.

- Noizko Paquitaren ikuskizuna euskaraz?

- Buff!!... Pena bat da nik euskara ez jakitea, ez naiz inoiz ikastaroetan matrikulatu zeren sekulan ez naiz ikasle ona izan. Bere garaian, adinagatik batez ere, ez nuen aukerarik izan ikastetxean ikasteko, gero Lan Heziketa egin nuen, eta gauzak horrela, gaur egun arte. Orain, berri, denbora faltan nago. Hala ere, nire iritziz, proposatuz gero nahi duenak erraz ikasi dezake; hortaz, oraindik ere posible dut eta, horregatik, beharbada noizbait euskaraz hitz egiteko gai izango naiz.

Entzun! Musika aldizkaria hilero zure etxean jaso nahi duzula?



Ba... bidali lehenbailehen galdera honen erantzuna -izena (ALDIZKARIKO ETIKETAN agertzen dena) eta telefono zenbakiarekin batera- Geu aldizkarira (helbidea, 4. orrialdean), Entzun! aldizkariko urte osoko harpidetza zozketatzen baitugu berau asmatzen duzuen artean.

Otsaileko galdera:

1999ko abenduan, 10ean hain zuzen, hip-hop talde bat etorri zen Gasteiza, zein?

Urtarrileko irabazlea: Alicia Ubeda Gutierrez • ZORIONAKI!

Erantzuna: Ez zen talderik elkarriketatu, 1998 urteko errebaso musikala egin baitzen

***LEHIAKETAN ESKU HARTZEKO HARPIDEDUN IZATEA EZINBESTEKOA DA (ETIKETAREN IZENA ZENHAZTU).**

LEHIAKETAK

AUGUSTIN ZUBIKARAI LITERATURA LEHIAKETA

Helburua: Euskal Herri osora begira, literaturgintza bultzatzea
Euskarazko narrazioak (baturaz zein bizkaieraz)
Sariak: 1.a, 140.000 pta.; 2.a, 100.000 pta.; 3.a, 85.000 pta.
Lanak hartzeko azken eguna: 2000ko otsailak 11
Informazio gehiago:
Udal Euskara Zerbitzua (94 683 36 68)
Ondarroako Udala. Euskara Batzordea

ANTZERKIA

Takolo, Pirritx eta Porrotx. Otsailak 5, 11etan
Plaza Berria edo Foru plazan
Antolatzailea: Pan Pin (Haur Eskolak Euskaraz Plataforma -gurasoen plataforma)

Tapia, Leturia eta Amuriza
Otsailak 17. Principal Antzokia (20:30etan)

Puffen Mundua. Otsailak 20
Principal Antzokia (18:00etan). Umeentzat

AIKIALDIA

KIMUAK TALDEA, aikialdia euskaraz
"GAUR IKASI, BIHAR IRAKATSI"
Zuen seme-alabek badute euskaraz gozatzeko aukera!!! Tailerrak, jokoak, irteerak, kanpamen-
duak... NORA JO: Errota Zaharra Auzo Elkarteko
lokalak, larunbat arratsalde 5etatik 7etara

ERAKUSKETAK

Jose Ferrero Villares
"A propósito de la deconstrucción"
ARGAZKIAK
ARABA LURRALDE HISTORIKOAREN AGIRITEGIA
Otsailaren 20ra arte

"Euskararen tunela"
Otsailak 22-26
Antolatzailea: EHE

BIDAIAK

OPORRAK EUSKARAZ
Bagare Euskal Tokia udarako bidaia bat prestatzen ari da, abuztuan oporraldi desberdinak egin asmoz:
IBILTARI agentziaren bidez KROAZIA eta ESLOVENIARA joatea, abuztuaren 12tik 26ra

IKASTAROAK

Adi BAGAREKO GAU ESKOLARI!
Otsailaren 28tik aurrera,
astelehenero, 8etan

EUSKARA GURASOENTZAT
BAGARE-ren eskutik
otsailan. Zure euskara aberasteko
eta zure seme-alabekin hobeto mintzatzeko!

ARABA EUSKARAZ 2000
Materiala salgai honako puntu hauetan:
Arriaga Liburutegia, Hiper Eroski

geurekin mendira

- Pinpil (1279 m)-
- Malkorra (1242 m)

Otsailaren 20an

Irteera: goizeko 9:30etan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean. AUTOZ

Itzulera: 15:00ak aldera

Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero, deitu telefono honetara: 945282316 (Maite)

*** Otsailaren 27an: SAN LORENTZORA, Bagare eta Euskaraz Bizi taldekoekin**
- Izena ematea: Otsailaren 26ra arte, Bagaren


BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

ANTOLATZAILEA: GEU ELKARTEA
OTSAILAK 26, PRINCIPAL ANTZOKIAN
ZURE AUZOAN BERTSO SAIOKO KARTELAK JARTZEKO PREST???
ZURE LAGUNTZA BEHAR DUGU (KARTELAK, EGUNEAN BERTAN...)

DEIGUZU ETA EMAN ZURE IZENA!!!
945 22 21 53

GAZTETXEKO AGENDA. OTSAILA

19. LARUNBATA. Judimendiko Gazte Asanblada-k antolatua: KONTZERTUA: GRAMONES, JO.D.T. eta ITXU
- ASTELEHENERO 7etan
GAZTETXEKO GAZTE ASANBLADAREN BILERA
- ASTEAZKENERO 8:30etan
KAKITZATen ASANBLADA



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ



Aiztogile (KUTXI) kalean



Errege Atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



izozkiak



Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

ESTREINALDIAK

zinema

- EL COLECCIONISTA DE HUESOS (*)

Zuzendaria: Phillip Noyce

Aktoreak: Denzel Washington, Angelica Jolie.

Banatzailea: Columbia

Herrialdea: EEBB

- AMERICAN BEAUTY- (*)

Zuzendaria: Sam Mendes

Aktoreak: Kevin Spacey, Annette Bening, Thora Birch.

Banatzailea: UIP

Herrialdea: EEBB



- LA PLAYA- (*)

Zuzendaria: Danny Boyle

Aktoreak: Leonardo DiCaprio.

Banatzailea: FOX

Herrialdea: EEBB

- TOY STORY II- (WALT DISNEY) (*)

Herrialdea: EEBB



- MAN OF THE MOON

Zuzendaria: Milos Forman

Aktoreak: Jim Carrey

Banatzailea: Columbia

Herrialdea: EEBB

- ASFALTO (*)

Zuzendaria: Daniel Calparsoro

Banatzailea: ALTA

Herrialdea: Espainia

BESTE BATZUK:

- PASION POR VIVIR- (LAUREN)

- EL CASCABEL

- THE GREEN MILE- (WARNER) Tom Hanks

- THE HURACAN- (BUENA VISTA) Denzel Washintong

- SEXUALIDAD VIRTUAL- (COLUMBIA)

- CARRETERA Y MANTA- Carmen Maura/Eduardo Noriega (*)

- JARA- (COLUMBIA)

- UNA HISTORIA VERDADERA

(*) VESA-koen iritiziz, interesagarreri eta arrakastatsuenak.

SAMA NIEGO

GURIDI

ADI LEHIAKETARI!!!

GURIDI ETA SAMANIEGO ZINEMEN ESKUTIK URTARRILERAKO ZINEMARAKO 2 SARRE-RA ZOZKETATZEN DITUGU ERANTZUNA ASMATZEN DUZUEN HARPIDEDUNEN ARTEAN.

Urtarrileko erantzuna: "Buena Vista Social Club". Wim Wenders. Ry Cooder

Irabazlea: Maite Alonso. Bakarra, beraz 4 sarrerak berarentzat. Zorionak!

OTSAILERAKO: El Sexto Sentido filmeko aktoreetako baten izena bidali

*Erantzuna eta saridunak datorren alean

BIDALI ERANTZUNA GEU ALDIZKARIRA (4. orrialdea) ...bilaren 20a baino lehen... POSTAZ EDO E-MAIL-EZ, ZUEN IZENA (ETIKETAKOA) ETA TELEFONO ZENBAKIA ZEHATZUZ.



Zaldieran Plaza, 10 • Tfno.: 945 22 65 64



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

LA RIOJANA
jatetxeaon egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ




HONAKO BULEGO HAUTAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa	Espainia plaza, 1	010
	Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
	Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
	Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
	Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
	Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
	Prentsa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
	Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa	Dato kalea, 11	16 16 68
	Zergen Gestioa	Dato kalea, 11	16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44
	Arkitektura	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 01
	Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30	16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 13 25
	Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde	Alberto Schommer kalea, z/g	16 18 80
	Iparralde	Zuberoa plaza, z/g	16 17 50
	Judimendi	Sefarad plaza, z/g	16 17 40
	Lakua	Etxanobetarren zidorra, z/g	17 17 81
	Aldabe	Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 33
	Biltzar eta Turismo Zerbitzua	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 61
	Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85	16 36 91
	Kirola	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 19
	Europar Mugimenduaren E.K.	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 57
	Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85	16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa	Agirrelanda, 8	16 14 58
	Antolakuntza	Agirrelanda, 8	16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

"...mahatsaren orpotik dator..."

•Otsailaren **26an**, Larunbata

•Arratsaldeko **8etan**

•Principal Antzokian

•Antolatzailea:

GEU

GASTEIZ EUSKALDUNA

•Babesleak:



•Laguntzaileak:

gara

RADIO VITORIA

El Periódico de **Alava**

CANAL GASTEIZ TELEVISION

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

DEIA

Arabako Bertsozale Elkarte



Bagare
EUSKAL TOKIA

EL CORREO

Egunkaria

SARRERAK SALGAI

•Bazkide eta harpidedunak.....**700**

•Arrunta, aldeztu aurretik.....**900**
(Arriaga, Axular)

•Principal Antzokian egunean bertan....**1100**

OMENALDIA

Gasteizko Euskaltzale Aitzindari gogoan